

Prentsa Oharra

Nota de Prensa



Udal gobernua presio fiskala %1,5 handitzea proposatu du

Donostiako alkate Eneko Goiak adierazi du, udal zerga eta tasa ezberdinen aldaketa 2022rako aurreikusita dagoen KPIa eta 2020an indizie honen emaitza kontuan hartuta egin dela

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du, 2022rako zerga arauen gaineko udal gobernua proposamena. Eta udal gobernua proposatzen du batz besteko presio fiskala %1,5 handitzea. Horrela aditzera eman du Donostiako alkate Eneko Goiak Tokiko Gobernu Batzordearen osteko prentsaurrekoan.

Goiak esan du, hurrengo urteko zerga arauak egiteko kontuan hartu direla, alde batetik, 2022rako KPIaren aurreikuspena (%1,8), eta bestetik indize horren iazko emaitza (%-0,3). Hortaz, alkateak adierazi du, Udal gobernua erabaki duela aurreikuspenari iazko emaitza kentzea eta, horrenbestez, presio fiskala %1,5 handitzeko proposamena egitea.

Zerga arauen aldaketaren ondorioz, Udalak aurreikusten du 1,8 milioi euro gehiago jasotzea. Eta horri esker, Udalak egoera finantzario onari eutsiko dio, betiere, kontuan hartuta Covid-19 osasun-larrialdiak sortutako egoera.

Tasak

Donostiako alkateak azaldu du, tasa gehienak bere horretan mantenduko direla, baina batzuek aldaketak izango dituztela, besteak beste, saneamenduaren eta hondakinen bilketaren gaineko tasak. Eta tasa hauek %3 eta %1,5 handituko dira.

Saneamenduaren gaineko tasa handitzeko arrazio nagusia honakoa da: laster Uraren kanona bezala ezagutzen den kanona ezarriko da, eta horrek, %5eko inpaktua izango du zerbitzuaren kostuan. Hondakinen bilketaren gaineko tasan, aldiz, aurreko urteekin alderatuta, batz besteko presio fiskala handitzea erabaki da.

Aldatuko diren gainerako tasak honakoak dira: hesi eta aldamiorekin Udal Jabari Publikoa Okupatzeko tasa %3 handituko da. Gainera, hondartzetako hainbat zerbitzuen gaineko tasa ere handituko da, bereziki, kabinak erabiltzeko ordaintzen diren prezioak. Eta ondorioz, dutxak erabiltzearen eguneko 1,10 euro ordaintzetik 1,60 euro ordaintzera pasako da, takilla eta dutxa erabiltzeagatik 1,50 eurotik 2,50 euro ordaintzera pasako da, eta denboraldiko abonuek 75 euro balioko dute (lehen 64,55 euro), 20 aldiz erabiltzeko abonuek 28 euro (lehen 20,40), eta 10 aldiz erabiltzeko abonuek 15 euro (lehen 11,27). Prezio gehienak 2013 eta 2014tik ez dira aldatu.

Era berean, garabiaren gaineko tasa %1,5 handituko da, eta epigrafe bat gehituko da segidakoa zehazteko: baldin eta garabiak zerbitzua eman behar badu ekitaldi bat dagoelako edo pertsona batek baimena eskatu duelako aparkaleku gune bat hesitzeko eta 24 ordu baino lehen autoren bat eramateko, garabiaren zerbitzuaren kostua baimena eskatu duenak ordaindu beharko du. Eta tasa 50 eurokoa izango da.

TAOren gaineko tasa %1,5 handituko da eta bi gune berri sortuko dira, Loiolan eta Melodin. Bi gune berri hauen sorreraren tramitazioa egiten ari dira, eta urtearen amaiera baino lehen onartzeko aurreikuspena dago.

Prentsa Oharra

Nota de Prensa



Zergak

Udal zergei buruz, IAE eta ICIO direlako zergak bere horretan mnantenduko dira, eta ICIO delakoaren kasuan hobariak emateko irizpideak handituko dira, hain zuzen ere, obra berriak eta eraikinak birgaitzeko orduan energia berriztagarriak erabiltzeari buruzko hobariak. Horren harian, Eneko Goiak esan du, bi udal zerga horiek bere horretan mantentzeko erabakia hartu dela ekonomia sustatzeko asmoz.

Honako hauek igoko dira: OHZ (%1,5), baina eutsi egingo zaie etxebizitza hutsei dagozkien errekarquei; salerosketa laburreko 1. eta 2. tarteetako gainbalioen gaineko zerga (%1,5); eta ibilgailuen gaineko zerga (%1,5), dauden hobariak kopuru handienera mugatuta.

2020 eta 2021eko hondakinen bilketaren gaineko zergan aldaketa

Tokiko Gobernu Batzordeak, halaber, onartu du indarrean dagoen hondakinen bilketaren gaineko zerga aldatzea, ostalaritza, elkarte gastronomiko eta gazteen lokalak zein txokoentzat. Hortaz, ostalaritzak eta elkarte gastronomikoek 2021eko lehenengo eta bigarren hiruhilekoetan lokal hutsa bezala ordainduko dute. Gainera, elkarte gastronomikoek 2020ko hirugarren hiruhilekoan lokal hutsa bezala ordainduko dute.

Bestalde, gazteen lokalek eta txokoek lokal hutsa bezala ordainduko dute 2020ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan, eta 2021eko lehenengo eta bigarren hiruhilekoetan, epe horretan osasun larrialdia dela-eta itxita egon direlako.

Egutegia

Behin Tokiko Gobernu Batzordeak proposamena onartuta, udal taldeei aurkeztuko zaie eta taldeek 10 egun izango dituzte zuzenketak edota arau proposamenak egiteko. Jarraian, irailaren lehenengo astean jardunaldi irekia egingo da hiritarrei proiektua azaltzeko. Ondoren, irailaren bigarren astean Ogasun batzordean eztabaidatu eta onartuko dira zuzenketak eta arau proposamenak. Eta azkenik, irailaren azkeneko asteko udalbatzan proiektuari hasierako onarpena emango zaio, eta beharko balitz, behin betiko onarpena abenduan egingo litzateke.

Donostia, 2021eko uztailaren 20a